

TALAIAN

Krisi finantzariotik, industrialera?

Ez gara alarmistak izan behar. Baina okerrera egin dezakeen errealitaterik bada. Munduko krisi finantzarioak krisi industrialari eman dakioke bide, eta ekonomiaren moteltzea oraindik gehiago bizkortu. Banketxeek zabor hipotekekin jolas egin dute, estatubatuarrek, eta baita europarrek ere; eta horiek dira egungo egoera ekonomiko finantzarioaren ardurdun nagusiak. Egoera horrek urtebete egin berri du, “subprime” zabor hipotekak kreditu historial txarra zuten pertsoniei eskaintzen hasi zirenez geroztik. Banketxeek eta pentsio fondoek interes altuekin jolas egin zuten, eta hipoteka horiek dirutza egin, horien atzean garantiarik ez zegoela “konturatu” ziren arte. Horrek guztiak milaka familiaren eta ehunka erakunde finantzarioen hondamena ekarri zuen. Areago, sistema finantzarioarengan konfiantza galdu da, arrisku gehiegi hartzea egotzi zaio. Banketxe eta aurrezki kutxak, gainera, ez dira elkarren artean fio eta ez die elkarri dirurik uzten. Bankekeen arteko merkatuak ez du funtzionatzen.

Orain banketxe eta erakunde finantzarioak enpresa eta norbanakoei kredituen iturria ixten hasi dira. Euskal Herrian ere atzematen hasi da uda baino lehen eta hementik aurrera gogortu egingo da. Egunak pasa ahala, enpresa ertain eta txikiek gero eta nekezago lortzen dituzte ezinbesteko zaizkien kredituak. Kreditu hori mozten bada, krisi finantzarioak krisi industrialari eman diezaioke bide, ekonomia gehiago motelduz eta hainbat sektoretan lanpostuak galduz. Banketxe eta aurrezki kutxek, oparoaldian enpresa eta familien pentzutan dirua egin dutenek, krisiari aurre egin beharko liekete, baina enpresak ito gabe. Euren irabaziak, azken finean, enpresen menpe baitaude.

Juan Mari Arregi

Hizkuntz ereduaren erreformaren ordua

EAEKO lau urteko Legealdiari ez zaio asko falta bukatzeko eta hizkuntz ereduaren lege proiektua biziarazi nahian dabil Tontxu Campos, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua. Udako geldialdia pasata alderdi politikoekin, hezkuntza eragileekin eta sindikatuekin ari da negoziazioetan sailburua. Azken txanpa baliatu nahi du Camposek, baina ez dauka erraza. PPren eta PSE-EEren ezetza badauka. Arabako PSE-EEko idazkari nagusi Txarli Prietok, esate baterako, Jaurlaritzaren egitasmoa inposatua, erradikala eta sektarioa dela adierazi du. Bestalde, dirudienez, EAk eta EAJk proposatutako erritmoak ez dira berak.

Lege proiektuak zehaztasun ikaragarriak ez du, baina oro har esanda, orain arte ezagutu dugun A, B eta D hizkuntz ereduaren eskema bertan behera geratuko litzateke. Eredu bakarra izango genuke, ikastetxeek gutxienez irakasgaien %60 euskaraz eskaini beharko lukete. Portzentajea alda daiteke udalerriko biztanleen %80 baino gehiago elebiduna denean. Era batera ala bestera, lege proiektuaren helburua oraingo bera da; ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan EAEko bi hizkuntza ofizialak menderatzea. A, B eta D ereduarekin ez da lortu, eredu berriak —onartzen bada eta nolakoa onartzen den— erakutsi beharko du.

BAHEA

Isidor Marfik gipuzkoaeuskara.net webgunean esanak: “Gaur egungo hezkuntza-testuinguruan, ikasketa-helburuen asmoa ikasleak hiru hizkuntza edo gehiago erabiltzeko gai izatea da. Hala ere, harrigarri samarra da hezkuntza-politikek, irakasleen prestakuntzak eta ikastetxeetako hezkuntza-egitasmoek faktore psikosozialei jaramon gehiago ez egitea, faktore horiek erabakigarriak baitira hizkuntza bat ikasterakoan eta batez ere haren erabilera eraginkorra egiterakoan”.

